

5. KANALAK

Komunikazio-kanalak: Guk gure jatetxea ezagutzara emateko, egunkarian inaugurazioko eguna adierazten hasiko gara, eta irekitzerakoan, triptikoak banatuko ditugu kaletik, hasierako bezeroak lortu ahal izateko. Behin jendeak gure existentziaz jakinda, sare sozialetan sartuko gara, kontu bat irekiko dugu Facebooken, eta han gure berriak, menuak, eskaintzak etab. jarriko ditugu.

Banaketa- eta Salmentak-kanalak: Hemen esan beharra dago negozio hau irekitzeko jende asko dagoen leku batean izan beharko lukeela. Beraz, Euskal Herrira begiratuta, Donosti gutxienezko bat izango litzateke, nahiz eta hemen turista asko egon 180179 biztanle bizi direlako bertan. Ideialena Bilbo izango litzateke, jende asko bizi baita han (342481 biztanle) eta arakastatsua izango litzateke gure ideia bertan.

Bost faseak:

Gure jatetxea ezagutzeko inaugurazio bat egitea pentsatu dugu eta triptikoak banatuko ditugu herri osotik behin jatetxea irekia edukitzean, jendeak gure existentziaz jakiteko. Baita zer eskaintzen dugun ere.

Erosketa, entrega eta salmenta ondorengoa batera doaz gure enpresan/jatetxean, edonor gure jatetxera doanean (ekoizten badu), hiru fase hauek betetzen ditu. Hasteko, bezeroak, bai bazkaria edo afaria eskatzerakoan erosketa funtzioa betetzen du. Behin janaria beraien mahaietan edukitzean bigarren pausua osatzen da, entrega. Azkenik, kontua ordaintzerakoan kontsumitu duzunarekin (janaria eta edaria) salmenta ondorengoa funtzioa betetzen da.